

## Irakaskuntza Heziketa Berezia

<https://irakaskuntza.lab.eus/>

Araba: 648735679

heziketabereziaraba@lab.eus

Bizkaia: 666778152 / 666771867

heziketaberezia@lab.eus

heziketabereziabizkaia@lab.eus

Gipuzkoa: 666775703

heziketabereziagipuzkoa@lab.eus



## Heziketa bereziko 2. mahai negoziatzailea izan dugu

### Hainbat gai landu dira gaurko mahai negoziatzailean

#### Ekoizpenagatiko kontratua

Dakizuenez azkenego Lan erreformaren ondorioz langileen Estatutuaren 15.2 artikulua aurreikusten duenez, sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez ekoizpen gorabeherengatiko kontratuaren gehieneko iraupena 6 hilabetekoa da. Aurreko ikasturtean administrazioak 10 hilabetera luzatzeko proposamena egin zigon.

LABetik proposamena aztertu eta ekarpenak bidaliko dizkiogu, kontratu mota hau aurrerikusi ezin daitezkeen egoerei lotuta eta salbuespenez egiteko dela kontuan hartuta.

#### Euskal autonomia erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen hezkuntza sistema-inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko dekretua aukeztu digute

Inklusioari aurre egiteko dekretu berri hau sakon aztertuko dugu, horretarako hilabeteko epean sektore bezala ekarpenak aurkeztuko dizkiogu Hezkuntza Sailari. Gure ekarpenak norabide hauetan bideratuko ditugu: eskoletako baliabide pertsonalak, formakuntza, profesional ezberdinen arteko koordinazioa eta elkarlana.

#### 2023ko lan eskaintza publikoa

2022ko birjartze-tasako datuak hartuta (Finkoek, besteak beste jubilazioengatik, eszedentziengatik eta ezgaitasunengatik libre utzitako lanpostuak) egingo den hurrengo LEPerako lanpostu kopurua eman digute; 3 lanpostu guztira.

Legeak zehazten duen gehinezko %8ko behinbehinekotasun tasara jaisteko geratzen diren bakanteak gehituko dituzte. Betsalde, LABek Akordio laborean sinatutako %5eko behin behinekotasun tasara heltzeko gehitu behar diren bakanteak eskatuko ditugu.

Jardun erdian dauden 300 bakante inguru eskaintzeko aukera dagoela esan digu administrazioak. Horren inguruan azterketa eta proposamena bidaliko dugu.

#### Lan hitzarmenaren negoziazioa

Aurreko mahaiari aurkeztu ziguten gaien inguruko dokumentuari ekarpenak egin genizkion eta gaur negoziazioarekin jarraitzeko, lan hitzarmenaren artikulatuaren gaineko proposamena bidali digute eta ekarpenak egingo ditugu.

